

FLORENTINA

Florentinak bularrak besarkatzen zituenean zirrara bat sentitzen zuen gorputz guztia zeharkatzen. Tximista leun bat sartu eta barren guztiak dardarka jarriko balizkio bezalatsu. Horregatik, egunaren buruan behin baino gehiagotan laztantzen zituen titiak. Egunean, gutxienez, hamar laztan egitea zen bere helburua. Batzuetan gehiago izaten ziren, eta haiek egun onak bihurtzen ziren. Beste batzuetan, gutxiago, eta horiek egun txarrak izaten ziren.

Florentinak bere bularrak laztantzen zituenean iruditzen zitzaion laztantzen zituzten esku zarpail haiek ez zirela bereak. Bere gorputzetik erauzi eta bizitza propio bat hartuko balute bezala. Eta bere bular sentiberetako azalak ezezagun baten aurrean izango luketen erreakzioa izaten zuten. Titimuturrak gogortzen zitzaizkion. Ereizio ttiki bat edukiko balute bezala.

Izan ere, Florentinaren bularrak ez zituen sekula laztandu bereak ez ziren beste eskuren batek. Ez esku hautagairik izan ez zuelako. Ez zen hori. Baizik eta hautagai haiek ez zitzaizkiolako inoiz gustatu. Hori zen.

Florentinak egunean ordu eta erdiko libertatea baino ez zuen izaten. Gainerako orduak etxean pasatzen zituen, ama zaharra zaintzen. Baina egunero 5etatik 6 eta erdietarako tarte horretan, ahizpa etortzen zen etxera. Eta erreleboa ematen zion. Esaten zion, "zoaz, Florentina". Eta Florentinak liburuak hartzen zituen -nobela arrosa erromantikoak beti- eta etxetik ateratzen zen. Libertatea hori zen Florentinarentzat: liburu bat irekitzea, eta erromantizismoak jotako protagonisten bizitza sofrituak irakurtzea. Negar malkoek irrist egiten zioten batzuetan. Baina bazekien bukaera zoriontsua izango zela. Negar malko bat sumatzen zuenean, bularrak laztantzen zituen. Eta bukaera zoriontsua heltzen zenean, ere bai.

Izan ere, ahizpa etxera etortzen zen ordu eta erdi hori zen Florentinak bizitza deitzen zion tartea. Gainerako guztiari dei ziezaiokeen biziraupena. Eustea. Jarraitzea. Bihotzak taupadak ematea. Baina bizitza? Ez, hori ez.

Florentinaren egunerokoa jaio zen etxeko lau hormen artean igarotzen zen. Zahartutako amak agintzen zuen han. Ohetik ezin zuen jaiki, baina egun santu guztia Florentinaka pasatzen zuen. Florentina, hau. Florentina, hori. Florentina, hura. Eta Florentinak, mundura ekarri zuen emakume hari esker onez, hau hori eta hura egiten zuen, txintik esan gabe. Tarteka, bularrak helduz. Arratsaldeko bostak heltzeko irrikan.

Florentina ez zen ateratzen enkarguak egitera ere. Astelehenetan, barazki-dendatik etortzen zitzaizkion, prestatutako saskiarekin. Asteartetan, denetarik saltzen zuten dendatik. Asteazkenetan, harategitik. Ostegunetan, arrandegitik. Ostirala, deskantsu eguna zen. Astero, gutxi gorabehera, gauza berak ekartzen zizkioten. Hurrengo asterako zerbait berezia behar bazuen –demagun, erratza hondatu zelako- Florentinak asteartean esaten zion dendako gauzen partiketan ibiltzen zen gazteari, eta hark, hitzeko, hurrengo asteartean erratza berria ekartzen zion.

Behin, arrandegiko Lydiak ausardia pixka bat, edo Florentinarekiko pena handia, sentituta proposatu zion: “Florentina, nolatan ez duzue ama zaharren egoitza batera eramaten? Guk gure aita eraman genuen, eta benetan ongi zaintzen zuten. Eta lasaitu ederra bai seme-alabontzat...”. Baina Florentinak ez-entzunarena egin zion arranketariari. Nola abandonatuko zuen mundura ekarri zuena zaharren egoitza batean? Utikan, utikan!

Konformatzen zen ordu eta erdiko libertatearekin eta liburu erromantikoekin. Egunero joaten zen hondartzako espigoira. Aukeratua zuen han

zein harriztarretan eseri. Beti egoten zen libre. Denek jakingo bazuten bezala ordu eta erdi hartan Florentinarena zela. Turistek ere errespetatzen zuten bere espazio propio hura.

Estrategikoki aukeratua zuen espigoian non eseri Florentinak. Han esertzen zen, hondartzatik ez hurbilegi, baina ezta ere urrunegi. Hondartzan gertatzen zen guztia ikus zezakeen handik. Ez zen gehien interesatzen zaiona, berari gehiago gustatzen zaio Jasmine eta Edward izeneko protagonisa arrosen bizimodu arrosak leitzea, baina kapitulu bat bukatzen zuenero, begiak jasotzen zituen liburutik eta minutu pare bateko atsedena hartzen zuen, hondartzara begira.

Negu partean lasaitasuna izaten zen nagusi hondartzan. Uda heltzen zenean, berriz, festa. Bi minutuko atsedean horietan ikusten zituen bainujantzi estuak eta motz-motzak janzten zituzten gizasemeak, ipurmasailak ondo markatuta, gorputz lerdenak ongi olioztatuta eguzkiak ez zitzan erre.

Bi minutuko atsedean horietan ikusten zituen gizaseme horiek berak kubata bat eskuan eta kantinatik heltzen zen musikarekin erdi-dantzan. Batzuetan, baten eskuak beste baten bularralde depilatura hurbiltzen ziren, eta laztandu egiten zuten. Florentinak bere bularrak laztantzen zituen bezala, maitekiro. Momentu horietan, inbidia puntu bat sentitzen zuen Florentinak. Hondartzako espigoi hartatik begira, gizaseme horien artean nahastu nahiko baizukeen, haien gorputz lerden olioztatuen artean nahastu, bere bularrak beste norbaiten eskuek laztantzen zituztela sentitzeko.

Espigoitik begiratzen zuenetan, gizaseme jaio izana desio izan ohi zuen Florentinak, eta ez emakume, ez Florentina.

Florentinak, izan ere, ez zuen desio bere emakume bularrak laztantzea gizaseme batek. Gizaseme bularrak laztantzen zituen gizaseme izan nahiko zukeen. Ez zekien zergatik, baina horrela zen.

Florentinak bazekien herrian asko hitz egiten zutela berari buruz. Bazekien gehienei pena ematen ziela, ama zaharra zaintzen, beste bizitzarik ez balego bezala. Bazekien pena ematen zuela, bizitzako urterik onenak 100 solairutako eraikin batetik behera bota izan balitu bezala. Bazekien pena ematen zuela, egunean ordu eta erdiko libertatea baino ez zuelako. Beti gisa berean hasten ziren Florentinari buruz hizketan. Baten batek esaten zuen, "gaur Florentina ikusi dut espigoian eserita, leitzen". Eta hortik aurrera, guztiek bazuten Florentinak pena emateko arrazoiren bat, guztiek bazuten Florentinaren bizitza zoriontsuagoa izan zedin proposamenen bat. Gero, besteren batek esango zuen, "izan du bada aukera ezkontzeko. Neska ederra zen gaztetan, gizaseme bat baino gehiago zegoen berarengan interesatua", eta inork ez zuen ulertzen zergatik ez zuen haietako inorrek ezkondu nahi izan. Ezkontzeak zoriontsu bihurtuko balu bezala edozein.

Baina Florentinari berdi zitzaion hori guztia.

Horregatik, hondartzatik etxera heltzen zenean, eta ahizpak atea giltzaz ixten zuenean, berriz ukitzen zituen bularrak Florentinak. Begiak itxita. Imajinatuz hondartzako gizaseme horietako bat zela bularrak laztantzen ari zitzaiona. Eta begiak irekitzean, amaren aldamenera joaten zen, dagoeneko Florentinaka ariko baitzen.

Baina Florentinak bazekien biharamuna helduko zela. Bostak helduko zirela. Espigoira joango zela. Eta hondartza hartara begiratuko zuela, bularrak ukitzeko motiboak ematen zizkioten gizaseme haiei begiratzeko.

Eskri